

Gernikako Udal Liburutegiak kalera aterako ditu bere liburuak abuztiaren 1era arte

Gernikako Udal Liburutegiak bere liburuak kalera aterako ditu, momentuz, abuztuaren 1ra arte, eta Foru Plazan jarriko ditu, Liburutegiaren ondoan. Udako zerbitzuaren ordutegia, haur, gazte eta helduentzat, hau da: goizez, astelehenetik ostiralera, 10:30etatik 13:30tara.

Ipuinak, pelikulak eta beste izango dituzte eskura erabiltzaileek. Halaber, aldizkariak eta eguneko prentsa ere aurkitu ahal izango dituzte. Azken finean, udarako eta bereziki haurrentzat aproposak diren irakurgaiak kaleratzea da ekimenaren helburu nagusia, Gernikako Udaleko iturriek azaldu dutenez.